


# ‘Gorriren autobiografia’, greziar mitologia XX. mendera ekarrita

- Joxe Mari Berasategik euskaratu du Anne Carson idazle kanadarrak idatzitako liburua.
- Olerkiaren eta prosaren arteko hibridazio bat da, esaldi laburrak eta luzeak tartekatzen dituena.



ITZULTZAILEA. Joxe Mari Berasategi, atzo, Donostian. JON URBE / FOKU

## Amaia Jimenez Larrea

DONOSTIA— Beharbada «ausarke-riaz» aritzen den itzultzaile bat dela esan du Joxe Mari Berasategik, eta ez da gutxiagorako, besteak beste literatura unibertsaleko idazle ga-

rrantzitsuen lanak euskarara ekar-tzen ari baita azken urteotan. Anne Carsonen *Gorriren autobiografia*. *Nobela bat olerki lerrotan* da euskarara ekarri duen azken liburua (Erein). Argitaletxearen Literatura Unibertsala bildumako 189. pieza

da. Berasategik aurretik ere euskaratuak zituen bilduma horretarako beste lan batzuk: Kate Chopinen *Ekaitza eta beste 34 ipuin* (2021); Maryse Conderen *Bihotza, negar eta irri* (2021), eta Marina Tsvetaievaren *Ene anaia femeninoa* (2022).

Carsonen liburua greziar mitologiako munstro bat du ardatz, eta haren autobiografia egiten du, olerkia eta narrazioa tartekatuz. 1998an kaleratu zuen lana, eta, Berasategik azaldu duenez, hasieran «ez zuen harrabotsik sortu». Urte batzuk geroago, ordea, pare bat sari jaso zituen, eta, ondorioz, kritikaren gorespina jasotzen hasi zen. 2013an, haren jarraipena izango zen beste argitalpen bat atera zuen: *Red Doc* —ez dago euskaratuta—.

Heraklesen hamargarren lanetik dator *Gorrin autobiografia* ardatz duen mitoa. Estesikoro poetak idatzi zuen testu hori (K.a. 630-550). Jatorrizko mitoa, Heraklesek Gerion munstroa hiltzeko lana du, haren abere taldeaz jabetzeko. Egileak, ordea, XX. mendeko Amerikara ekartzen du mitoa, Gerionen pertsonaia erdigunean jarri. «Ez-ahaltsuen ikuspegia landu nahi izan zuen Carsonek; biktimena»,

esan du itzultzaileak. Munstroak hiru urte zituenetik 20 bete zituen arteko bizitza kontatzen da liburuan.

## Greziara ikastea

Toronton jaio zen Carson (Kanada). Ikasi zuen institutu bateko lantineko irakasle batek, ikusirik nola interesatzen zitzaion latina Carsoni, greziara irakatsi zion. Gaur egun, greziara klasikoa irakastea du idazleak bizimodu.

Egilea, liburua idazterakoan, ohartu zen agian irakurleek ez zutela istorioa ondo ulertuko, eta, Berasategiren hitzetan, «autobiografia testuinguruan jartzeko» lana hartu zuen. Horrela, autobiografiaren aurretik, bai eta ondoren ere, hainbat testu gehitu zituen; sei dena. Horietako bat da sarrera, *Haragi gorria: zer alde egin zuen Estesikorok?* izenburua jarri ziona. Bertan, Gertrude Stein idazlearena egiten du Carsonen mitoaren eta haren egilearen inguruko informazioa emanez.

Bigarren atalean, gaurko egunera iritsi diren Estesikororen testuen zatiaf daude itzulita. Hiru eranskiri ere gehitu zituen, egilearen bizitzari buruzkoak. Horren ostean dator Gerionen autobiografia, 47 olerki-narrazioetan jasota. Amaitzeko, berak Estetikororekin izandako fikziozko elkarrizketa bat irudikatzen du Carsonen.

Itzultzailearentzat, *Gorrin autobiografia*-ren egilearen ezagarririk bereizgarriena generoen arteko nahasketa da. «Haren zale direnentzat, poesia baino zerbait gehiago izango da haren lana, eta, harekin kritikoa direnentzat, aldiz, poesia baino zerbait gutxiago», kontatu du. Carsonen berak 2011n aipatu zuen prosazko lan bat egiteko asmoa zuela hasieran, eta modu «desberdin» askotan saiatu zela hori egiten. Halako batean, esaldien luzerarekin jokatzeko ideia izan zuen, eta, gustura geratu zenez, metodo horrekin jarraitzea erabaki zuen.

Itzulpenera «gozatsua» izan dela aitortu du Berasategik, eta horren ondoren egilearen lan gehiago irakurtzeko eta itzultzeko gogoia sortu zaiola: «Hemen ardura-dun nagusiak daudela, botako dut amua», esan du, barre artean. ●

## MARKINA-XEMEINGO UDALA

### IRAGARKIA

Markina-Xemeingo Iderraga-Ituarte birpartzelatzeko proiektuaren agiri juridiko osagarriaren behin-betiko onarpena (2024-KO5-014)

2024ko ekainaren 19an behin betiko onartu da Iderraga – Ituarteko birpartzelazioaren agiri juridiko osagarria, 1. loteari eta lote hori sorrarazi zuten jatorrizko finkei dagokienez.

Lote hori ezin da gauzatu, hiri-antolamenduko plan orokorrak ez duelako jaso, dokumentuan azaltzen diren hainbat arrazoiengatik.

Dokumentu horren helburua da Iderraga-Ituarte-ko egoitza-unitateko 1. lotea ematen zuten jatorrizko finkek berriro hasierako egoerara itzultzea.

Markina-Xemeinen, 2024ko ekainaren 19an.

Alkatea, La Alcaldesa, Iratxe Lasa Arana

### ANUNCIO

Aprobación definitiva del documento jurídico complementario del proyecto de reparcelación de Iderraga-Ituarte en Markina-Xemein (Expediente 2024-KO5-014)

El 19 de junio de 2024 se ha aprobado definitivamente el documento jurídico complementario de la reparcelación de Iderraga – Ituarte, en lo que se refiere al Lote resultante 1 y las fincas de origen que dieron lugar a dicho lote.

El citado lote no se puede materializar por que el plan general de ordenación urbana no lo ha recogido por distintas razones que se exponen en el documento.

El objeto de dicho documento es el de volver a restituir a su situación inicial las fincas de origen que daban como resultado el lote 1 de de la Unidad residencial de Iderraga-Ituarte.

En Markina-Xemein, a 19 de junio de 2024.

Alkatea, La Alcaldesa, Iratxe Lasa Arana



«[Carsonen] zale direnentzat, poesia baino gehiago izango da haren lana, eta kritikoa direnentzat, poesia baino zerbait gutxiago»

JOXE MARI BERASATEGI  
Itzultzailea